



PH-METRIA ESOFAGIKOA HAURRENGAN

Zertan datza proba?

PH-metria esofago azidoaren ezaugarriak aztertzeko teknika bat da. Azido horren kantitateak ez ditu muga batzuk gainditu behar. Azido hori urdailetik dator, eta hestegorrian gehiegi badago, errefluxu gastroesofagiko patologikoa du.

Nola prestatu behar zara probarako?

Baraurik joan beharko duzue:

- 0 eta 3 hilabete bitartean** 3 orduko baraualdia egin beharko dute
- 4 eta 6 hilabete bitartean** baraurik egon beharko dute gutxienez 4 orduz.
- 6 hilabete eta urtebete bitarteko** haurrek gutxienez 6 ordu eman beharko dituzte baraurik.
- Urtebetetik gorako haurrek 8 ordu** eman beharko dituzte baraurik

Ez dute protoi-ponparen inhibitzaierik hartuko (omeprazola, lansoprazola, pantoprazola, esomeprazola) proba egin baino 7 egun lehenago, ez eta H2-ren hargailuak inhibitzeko farmakorik ere (ranitidina), ezta antiazidorik ere 48 ordu lehenago.

Non egingo dizute proba?

7. solairuan, D eremuan, Manometriak. Iristean, entregatu proba eskatzeko bolantea Idazkaritzan.

Sarrera adierazi badizute, sartzeko aginduarekin batera joango zara onarpenera 1. solairuan, B eremuan, Pediatria Zerbitzuan sartzeko programatutako eguna eta ordua.

Nola egingo dizute proba?

- Zunda mehe eta malgu bat sartuko zaio sudurretik urdaila hasi arte. Zunda eztarritik pasatzea gogaikarria da, eta segundo batzuen buruan desagertuko diren goragalea eragin diezaioke.
- Proba egiteko ez da sendagairik edo lasaigarririk eman behar, tolerantzia ona baitute..
- Zunda 24 orduz egongo da jarrita, grabagailu eramangarri bati konektatuta. Denbora horretan bizitza guztiz normala egingo du, eta ezin izango du txiklerik, izozkirik edo edari oso hotzik murtzikatu.
- Telefono mugikorrek grabagailuaren funtzionamendua oztopatu edo deskonfiguratu dezakete, eta, beraz, itzalita egon beharko dute erregistroak irauten duen bitartean.
- Orri bat emango zaio, adierazten zaizkion erregistroak jasotzeko, grabagailua ez manipulatzeko. Zunda ateratzen bazaizu, Pediatriako Larrialdi Zerbitzura joan beharko duzu, berriz jar dezaten.
- Hurrengo egunean, adierazi dizuten zunda kenduko dizute (Pediatria Unitatea edo Manometria-zerbitzua).

Zer egin behar duzu probaren ondoren?

Ez duzu arreta berezirik behar.